



BERGARAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO KONTSEILUAREN ERREGELAMENDUA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

Onartuta: Udalbatzak 2018/04/23an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2018/07/13an

BERGARAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO KONTSEILUAREN ERREGELAMENDUA

1. Artikulua. Izaera.

- Bergarako emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal kontseilua parte-hartzean oinarritutako organoa da eta Udalak, eta emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunaren alde lan egin nahi duten herritar, talde nahiz elkarteek osatzen dute.
- Kontseilua organo aholkularia, kontsultakoa, informatzailea, ekintzen sustatzailea eta behatzailea da.

2. Artikulua. Helburuak.

Berdintasunerako kontseiluak oinarritzko helburu hauek izango ditu:

- Gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasunaren alde lan egin nahi duten pertsonen eta eragile sozialen sarea sortzea.
- Emakumeen parte-hartzea, ahalduntzea eta protagonismoa bultzatzea.
- Berdintasunarekin lotutako gaien inguruan hausnarketa egitea, elkarlanerako adostasun puntuak biltzea eta aukera-berdintasuna bultzatzeko ideia berriak sustatzea.
- Bergarako emakumeen beharrak eta diskriminazio egoerak identifikatzea eta horiei erantzuteko eta gainditzeko berdintasunerako baldintzak sustatzea.
- Emakumeen eskubideak eta interesak defendatzea.
- Emakumeenganako indarkeria mota guztiak ikusgarri egin eta salatzea.
- Berdintasunaren arloekin zerikusia duten herriko edozein gertaera jasotzea aztertzea eta behar den erantzuna bideratzea.

3. Artikulua. Funtzioak

1. Aurreko artikuluan zerrendatutako helburuak betetzeko, kontseiluak ondorengo funtzioak beteko ditu:

- Dagokion informazioa jaso eta biltzea.
- Bere ekimenaz edo hala eskatzen zionean, udal jarduera-planetan berdintasun printzipioa bete dadin neurriak sustatzea, udalari iradokizunak egitea, horretarako behar den informazioa jaso, azterketak eginez, txostenak burutuz edo bestelako baliabideak erabiliz.
- Aukera berdintasunarekin lotutako gaietan, udalaren eta herritarren edo kolektiboen arteko bitartekari lanak egitea, euren eskaerak, proposamenak, salaketak, iritzi ezberdinak jaso eta kudeatzea.
- Urteko berdintasuneko plangintza zehazteko neurri, jarduera, kanpaina eta programak diseinatu eta bideratzen laguntzea.
- Urteko berdintasuneko plangintzaren eta esku hartzearen jarraipena eta ebaluazioa egitea.

4. Artikulua. Osaketa

Kontseiluko partaide izan daitezke hitzarekin eta botoarekin honakoak:

BERGARAKO UDALA

Bergarako emakumeen eta gizonen berdintasunerako kontseiluaren erregelamendua

- Alkatea edo zinegotzi delegatua kontseiluaren lehendakari lanetan.
- Berdintasun teknikaria, edo bere ordez udalak izendatzen duena, kontseiluko idazkari lanak ere beteko dituena. Herritarrak eta herriko eragile politiko, sozial, talde, elkarte eta entitateak emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren defentsan lan egiten dutenak, beti ere gaiarekin interes egonkorra dutenak eta gizarte arloko beste hainbat elkarteetako emakume-atalak elkarte berean entitate berezi eta autonomoak badira.

5. *Artikulua.* Kontseiluko organoak

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako kontseiluak ondorengo organoak izango ditu:

1. Lehendakaritza:

Kontseiluaren lehendakaritzak ondorengo funtzioak beteko ditu:

- Kontseiluaren ordezkari izan udalerrian.
- Kontseiluaren bileren deialdian egin eta bilerak gidatu.
- Partaideen altak eta bajak jakinarazi Kontseiluak hala proposatu duelako.
- Kontseiluaren proposamenak aurkeztu eta defendatu dagokion Batzorde Politikoan.
- Kontseiluaren proposamenen garapenaren berri eman dagokion Batzorde Politikoan.

2. Idazkaritza

Kontseiluaren idazkariak ondorengo funtzioak beteko ditu:

- Bileretarako deialdiak prestatu eta bidali.
- Bileretarako aktak egin.
- Bileretan gaiak aztertzeko eta erabakiak hartzeko behar den dokumentazioa eta informazioa bidali.
- Eztabaidak gidatu eta bideratu.
- Kontseiluaren proposamenak aurkeztu defendatu dagokion Batzorde Politikoan gaiak edo egoerak hala eskatzen duenean.

3. Kontseiluko kideak

Kontseiluaren kideek ondorengo betebeharrak izango dituzte:

- Bileretan aktiboki parte hartu.
- Bileretan hartutako konpromisoak bete.
- Kontseiluko bileretan landutako edukien berri eman bere elkarteko kideei.
- Kontseiluaren arautegia onartu eta bete.

6. *Artikulua.* Kontseiluan sartzea.

- Laugarren artikuluan aipatutako elkarte, talde eta norbanakoek kontseiluan sartzeko eskatu behar dute, lehendakariari zuzendutako eskaera orria betez.
- Kontseiluan parte hartu nahi duenak edozein momentutan egin dezake sartzeko eskaera.
- Datuak aldatuz gero, Kontseiluko idazkariari jakinarazi beharko zaio.

7. *Artikulua.* Kontseiluko partaide izateari uztea.

1. Kontseiluko kide izateari utziko zaio honako kasuetan:

- Partaideak hala eskatzen badu.

BERGARAKO UDALA

Bergarako emakumeen eta gizonen berdintasunerako kontseiluaren erregelamendua

- Taldea nahiz elkarte desegiten bada.
- Arauak betetzen ez baditu.
- Justifikaziorik gabe bileretara ez joateagatik (hiru aldiz jarraian edo bost txandakatuan).
- Kontseiluko printzipioen aurkako jarrera eduki edo jarduerak egiteagatik gainerako kide gehien iritzirako.

8. Artikulua. Kontseiluaren funtzionamendua.

- Kontseiluaren ohiko bilerak bi hiletik behin egingo dira, eta ez ohikoak lehendakariak edo kideen herenak horrela eskatzen dutenean.
- Lehendakaritzak deialdiak idatziz egingo ditu; ohiko bileren kasuan 7 egun lehenago eta apartekoen kasuan 2 egun aurretik.
- Kontseilua eratuta egoteko beharrezkoa izango da kideen erdiak gehi bat bertaratzea.
- Lehentasunez erabakiak denon adostasunarekin hartuko dira, eta, hori ezinezkoa izanez gero, bertaratutakoen gehiengo soilez.
- Bilkura bakoitzaren akta egingo da, eta bertan jasoko dira bilkurara bertaratutakoen izenak, hasierako ordua, bukaerakoa, erabakitako gaiak eta, kasuan kasu, bozketen emaitzak.
- Lan batzordeak sortu ahal izango dira, baldin gehiengoaren iritzirako gaiak aztertzeko beharrezkoak badira. Sortzean zehaztuko da funtzionamendua eta kideak zeintzuk izango diren.

9. artikulua. Arautegi osagarria

Erregelamendu honetan aurreikusi ez den orotarako, indarrean dagoen eta aplikagarria izan diatekeen legedia aplikatuko da.